

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2025eko azaroak 14 · 1373 zenbakia



BEHOBIA-DONOSTIAREN MAGIAK HARRAPATUTA

BLACKFRIDAY

lehen 109€

2MÓ 99€

betaurreko graduatuak

batzuk eguzkitakoak izan daitezke

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



MULTIÓPTICAS

943 20 05 22

Bidebarrieta, 2. EIBAR



hitzordua eskatu

www.multioplicas.com





ORAIN BAKARRIK

ARRATE HOMES • EIBAR



**Erreserbatu orain zure
etxebizitza eta ez ordaindu
eskritura-gasturik***

*Kontsultatu oinarri legalak.



**Errebal plaza
ondoko etxebizitzak**

Garajea | Trastelekua
Gimnasioa | Gourmet aretoa

900 11 00 22 • neinorhomes.com

EZ GERATU GIDATIK KANPO!



688 62 15 35
publizitatea@etakitto.eus

Jarraitu gaitzazu!

BIDEOAK YouTubean ikusgai



Jarraitu aktualitatea gure webgunean eta sare sozialetan



Domeka honetan Behobia-Donostia lasterketaren 60. edizioa jokatu da. 28.000 korrikalari inguruk hartuko du parte eta hainbat eibartar izango dira bertan. Herri lasterketa hori hainbatetan egin dute Iker Lasuenek eta Aitziber Urkiolak, eta horren inguruan egin dugu berba eurekin. Bideo hau eta beste asko ...eta kitto!-ren YouTubeko kanalean ikus daitezke.

www.etakitto.eus

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi

Belar, Ander Fernandez, Silbia

Hernandez, Irune Jaio eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Irune Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Iker Lasuen

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenwean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratuzten diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeke eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bwdali daitezke (Urkizu, 11 - solairuarte), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Hortik esanak



Eibarren kale berri bat bataiatu beharko balitz? Zein izen jarriko zenioke? Gure herriko historian garrantzi handia izan duen pertsonaia baten izena? Isil-isilik, itzalean eta musutruk, horrenbeste lan egiten duen herritar batena? Edo gaur egun, bizitzten ari garen garai ilunean, irriparra sortzen digun izenen bat, nahiz eta frikada galanta izan eta hurrengo mendeko eibartarrek ez ulertu?

Iratxe Giménez, txistularia eta idazlea

Gure enpresaren kulturak, parte-hartzailea eta horizontal samarra dena, belaunaldien arteko integrazioa errazten du. Belaunaldi-erreleboa ikuspegi estrategikotik lantzea ezinbesteko erronka da, enpresaren esentzia eta kultura galdu gabe. Belaunaldien arteko bizikidetzaz ez da adinen arabera banaketa bat, baizik eta ikuspegiak batzea da, berritzeko eta etorkizuna eraikitzeke gaurtik hasita. Azken batean, belaunaldi arteko bizikidetzaz ez da "ku-deatu" beharreko arazo bat. Aberastasuna da, aktibatu beharrekoa. Digitaletik, lankidetzatik eta elkarrekiko errespetutik. Horrela bakarrik eraiki ditzakegu talentua benetan sortu eta atxikitzen duten erakundeak.

Eneko Astigarraga, soziologoa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PISTOLA. → Eskuzko arma. “Eibarren sasoi batien pistola asko eta onak egitten ziran”. Zopa (berakatz-zopa, arrain-zopa...) egiteko erabiltzen den ogia, mehea eta gogorra eta nahiko erre. “Okindegixan erositako pistolak eruan etsen lagunei bankua atrakatzeko”.

PITILIN → Zakila, umeena batez ere. Txilibito, pitto, buztan, txistu, txakil. “Ezkutaizu pitiliñori, katuak jan ez deizun!”



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 7
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18))
ZAPATUA 8
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 9
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
ASTELEHENA 10
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
MARTITZENA 11
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
EGUAZTENA 12
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 13
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
BARIXAKUA 14
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Gregorio Sarasola Ormazabal**. 52 urte. 2025-X-29.
- **Mari Carmen Susaeta Mendikute**. 80 urte. 2025-X-30.
- **Rosa Guisasola Ortiz De Villalba**. 2025-X-30.
- **Jose Fernandez Barruso**. 89 urte. 2025-XI-01.
- **Francisco Espinosa Clemente "Paco"**. 79 urte. 2025-XI-01.
- **Carmen Azpiri Ugarteburu**. 79 urte. 2025-XI-02.
- **Manuel Gallego Fontarigo**. 84 urte. 2025-XI-03.



Abenduaren 18rako manifestazioa deitu dute Euskal Herriko pentsiodunek

S.H. Asteroko elkarretaratzea egin zuten astelehenean Eibarko Pentsionista Taldekoek, eta 123 lagun elkartu ziren Untzagan. Bertan jakinarazi zutenez, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua (EHPM) manifestazioa egingo du Gasteizen, abenduaren 18an, “EAEko alderdi politikoei gure eskaera onar dezaten eskatzeko eta, 2026rako EAEko aurrekontuen onarpenarekin bat eginez,

horiek bermatzeko beharrezkoak diren aurrekontu-partidak bideratzeko”. Era berean, pentsiodunen mugimenduaren, sindikatuen eta bestelako kolektiboen arteko mobilizaziorako topagune bateratuak bilatzearen alde azaldu dira, “alde batetik, pairatzen ari garen portae- ra antidemokratikoak kritikatu eta salatzeke. Eta, aldi berean, gutxiene- ko pentsio eta gutxieneko solda- ta duin eta nahikoak exijitzeko”.



Aurten 80 urte bete edo beteko dituztenen ospakizuna

S.H. Urriaren 23an ospatu zuten beraien jaia argazkian ikusten dituzuen andra-gizonek. Gran Reserva izena jarri diote taldeari eta, hala direla argi dago, bazkaria urtero egiten dute eta.



Eibarko lau taberna lehian, ETBko Pintxo Pote saioan

S.H. “Pintxo Pote” ETBk abian jarri duen lehiaketa gastronomiko berria da, Euskal Herriko herri eta auzoetan zehar bidaiatzen duena pintxorik onenaren bila. Saioa Javi Sierra sukaldari ezagunak aurkeztu du, eta bertan tokian tokiko lau tabernek hartzen dute parte atal bakoitzean. Aste honetan Eibarren ibili dira, Untzagan plazan grabaketa egiten, eta han ikusi ditugu Ongietorri, Kontent, Amesti eta Albert tabernetako aurpegi ezagunak. Zorte on guztioi!



Bilboko manifestaziorako autobusa antolatu dute

S.H. Azaroaren 22an Bilbon egingo den manifestazio nazionalera joateko autobus zerbitzua antolatu du EH Bilduk. Herriz herri izena emateko guneak eta irteera ordutegiak zehaztu dituzte eta, jakinarazi dutenez, Eibarren, Guridi tabernan eman daiteke izena. Autobusa 16:15ean irtengo da.



Ipuruako merkatuko plazoleta “suntsitzen” duen proiektua geldiarazteko eskaera

S.H. Ipurua Merkatu Plaza (IMP) elkarteak salatu du Udaleko Obra Sailak haiekin, Ego Ibarrarekin eta Hirigintza Sailarekin kontsultatu gabe atera duela lizitaziora plaza suntsituko duen arrapala proiektua. Elkarrekin gogorarazi du Romualdo Galdoseko etxe multzoak, lorategiek, merkatuak eta eskolak udal mailako babesa dutela, eta EAEko Kultura Ondarearen Erregistroan sartzeko proposatuta daudela. IMPk azpi-

marratu du badagoela beste aukera bat: 2022an udalak enkargatu eta ordaindutako igogailu-proiektua, herritarren parte-hartze prozesuarekin bat datorrena eta irisgarritasuna bermatzen duena, plazoleta suntsitu gabe. Gainera, Ondarearekiko errespetua eta diseinuaren simetria gordetzen dituela adierazi dute. Horregatik, IMPk eskatu dio Udalari lizitazioa berehala gelditze-ko, “beste alternatibak aztertu arte”.



Zuhaitzak landatzera joateko jardunaldia antolatu du Baso Biziak-ek

S.H. Eibarko Baso Biziak plataformak negu sasoiko lehen baso-berreskuratzeko jardunaldia egingo du azaroaren 16an (domeka), Arrate Balleko Lizarreta lursailetan. Arrateko frontoian elkartuko dira, 10:00etan, handik denak elkarrekin zuhaitzak landatzera joateko. Parte hartu ahal izateko aurretik izena eman behar da, eibarkoba-sobiziak@gmail.com helbidera mezua bidalita (parte-hartzaileen izen-abizenak, adina eta telefono zenbaki bat adierazi). Laguntzen dutenei eskerrak emateaz gain, “gure basoak berreskuratzeko herritarren inplikazioa funtsezkoa” dela nabarmendu dute. Hurrengo landaketa-jardunaldia abenduaren 14an (domeka) egingo da.



Azaroaren 7tik 30era

Tripontziak menuak 38€ tara!

Baratze Taberna
Belaustegi Baserria
Hiru Bistro
Itsaslabarrak Jatetxea
Pikua Jatetxea
Trabakua Behekoa Jatetxea
Urgain Jatetxea











Familia askok haurreskoletan plazarik gabe jarraitzen dutela salatu du EH Bilduk

S.H. Eibarko EH Bilduk Udalari eskatu dio haurreskolen plazen arazoari berehala irtenbidea emateko, bigarren urtez jarraian familia asko plaza gabe geratu direlako. Gogorazi dute abendutik aurrera 0-2 urteko haurrentzat 41 plaza gehiago egongo direla, baina uste dute konponbidea berandu iritsi dela, aurtengo haurreskolak guztiz beteta baitaude.

Koalizioak salatu duenez, “Udalak ez du ardurarik hartu, eta informazio falta egon da”. EH Bildu-

ren arabera, Udalak Haurreskolen Partzuergoari plaza-kopurua hantitzeko eskatu behar dio, “herriko beharren arabera”. Horregatik, udal-gobernuari eskatu diote Partzuergoarekin elkarlanean aritzeko eta prozesua bizkortzeko, familiek plaza berriak ahalik eta azkarren erabilgarri izan ditzaten. Halaber, 41 plaza nahikoak diren aztertzea eta gaia gardentasunez kudeatzea proposatu dute, haurreskolak “funtsezko zerbitzu publikoa” direla azpimarratuz.

30. urteurrena ospatuko dute Beheko Tokia adinekoen zentrokoek datorren astean

S.H. Beheko Tokia adinekoen zentroa zabaldu zutela 30 urte bete dira eta, hori ospatzeko, hainbat jarduera prestatu dituzte datorren asterako: azaroaren 13an, eguena, 18:00etan kafesnea hartu eta, jarraian, musika emanaldia izango dute, Sofia Machin eibartarraren eskutik. Hurrengo egunean (azaroak 14), umeentzako txokolate-jana eskainiko dute, 17:00etan, eta

jarraian magia ikuskizuna aurkeztuko du Lekim-ek. Horrez gain, “*Osasuna eta udazkena*” hitzaldia (gaztelera) antolatu dute azaroaren 12rako (eguztena), 11:00etatik 13:00era Beheko Tokia adinekoen zentroan bertan. Izen-ematea osasun zentroan (943032500/943032650) edo Adinekoen Zentroko bulegoan (688 68 45 09) egin daiteke.

Eibarko langabezia-tasa pixka bat jeitsi da urriko datuen arabera

S.H. Urriko datuen arabera, 1.505 langabetu daude Eibarren eta langabezia-tasa %12,01ekoa da. Langabeziak behera egin du herrian (irailean 1.507 lagun zeuden langabezian eta langabezia-tasa %12,03koa zen). Eskualdeko herri guztietako datuei begira, urriko langabezia-tasa %10,35ekoa da (irailean %10,21ekoa zen). Debak dauka langabezia-tasarik baxuena (%5,84), eta altuena Sorluzek (%12,41), Eibarren gainetik.



Doako bisita gidatua eskainiko du Museoa azaroaren 19an

S.H. Hilero bezala, azaroan ere doako bisita gidatuak antolatu ditu Eibarko Armagintza Museoa, bere erakusketa iraunkorra eza-gutu nahi dutenentzat. Azaroaren 19an izango da, eta bi saio eskainiko dira: bata 17:00etan (euskaraz) eta bestea 18:30ean (gaztelera). Bisita bakoitzak 60 minutuko iraupena, eta 20 lagunekoko parte-hartzaile kopurua izango du. Plazen onarpena inskripzio-ordenaren arabera egingo da. Interesdunek ondorengo posta elektronikoan eman beharko dute izena: museoa@eibar.eus.



Amesti tabernaren “Muselina Moltopiuk” irabazi du Eibarko Pintxo Onenari Saria


S.H. XXI. Eibarko Pintxo Lehiaketako epaimahaiak aurreko astean hartutako erabakiaren arabera, Amesti tabernak irabazi du Pintxo Onenari Saria, *Muselina Moltopiuk* pintxoarengatik, “betiko produktuen bertsio berritua eta elaborazioagatik”; bertako produktuekin egindako pintxo onenari saria Depor tabernarentzat izan da, *Mendizale* izenekoarengatik, “produktuaren aukeraketa eta kalitatetik lortutako osagarritasunagatik”; eta publikoaren saria Beleko tabernaren *Trufas trufurius* pin-

txoak eskuratu du. Botoemaleen arteko zozketan, Errigoraren kutxa Chic tabernako Fernandori egokitu zaio (2.827 bozka).

Horrez gain, epaimahaiaren epaimena jaso dute Chic tabernak, *Brotxeta itsasoa eta mendia* pintxoarengatik, “soiltasunetik abiatuta textura eta puntuan asmatzeagatik”, eta Topa-Lekuk, *Kono Konfite* izenekoarekin, “osagaien zaporeak nabarmentzeko gaitasun eta aurkezpenagatik”. Sari banaketa azaroaren 30ean, San Andres egunean egingo da.

Luzaketa tailerra egingo dute bihar goizean Ipuruako Merkatu Plazan

S.H. Nuria Rodriguez Ibarraren eskutik, bihar (zapatua, azaroak 8) luzaketa tailerra egingo dute Ipuruako Merkatu Plazan. Beste batzuetan bezala, bi txanda egingo dira aukeran: 09:30etik 10:15era eta 10:15etik 11:00etara. Interesa izanez gero, aurretik izena eman beharra dago, 672275578 telefono zenbakian edo nuriarodriguezibarra@gmail.com helbidera mezua bidalita. Aurreratu dutenez, azaroaren 22an ikastaroa errepikatuko dute.



Aste honetan hasiko dira Sostoatarreneko eskilara mekanikoak berritzeko lanak

S.H. Eibarko Udalak jakinarazi duenez, aste honetan bertan hasiko dira Egiguren eta Sostoatarren kaleak lotzen dituzten eskailera mekanikoak aldatzeko lanak. Obra TK Elevadores España enpresari esleitu zaio, eta 25 aste inguruko iraupena izango du. Proiektuak 270.000 eurotik gorako inbertsioa izango du. Udaletik adierazi dutenez, beharrezko berritze-lana

da honakoa, gaur egungo eskaile-
rak beren bizitza erabilgarriaren
amaierara iritsi direlako eta arazo
ugari sortzen ari direlako. Obraren
bidez sistema osoa ordezkatuko da
eta modelo modernoagoak, isila-
goak eta energetikoki eraginkor-
ragoak jarriko dira. Berrikuntza
hau EAJ eta PSEk sinatutako go-
bernu akordioan jasota dagoela
gogorarazi dute.

Gaztainerre: elkartzeko, abesteko eta gozatzeko eguna



Testua **IRATI ALVAREZ**

Arimen egun osteko bigarren astelehenean ospatzen da Gaztainerre, jatorriz hildakoen omenezko otordu sinbolikoa izan zena; gaur, familia eta lagun artean, marraskiloak, gaztaina erreak eta bertsoak dira nagusi. Ermua, Soraluze, eta noski, Eibarko tradizioa da.

Gaztaina erreen eguna da Gaztainerre. Gure herrian Arimen Egund osteko bigarren astelehenean ospatzen da, lagunartean zein familian. Neguaren atarian, etxeak eta elkarte gastronomikoak usain goxoz betetzen dira: saltsa goxodun marraskiloak eta, nola ez, gaztaina erreak dira protagonista.

Aspaldi, neguko oinarritzako elikagaia zen gaztaina. European patata eta artoa iritsi aurretik, gaztaina izan zen neguko elikagai nagusietako bat, eta Euskal Herrian ere hala izan zen. Gaur gure artean gaztainondo gutxi geratzen bada ere, garai batean ugaria zen arbola hori, eta sasoi honetan gaztaina merkea, ugarikoa eta erraz partekatzekoa izanik, ohikoa zen familiek eta lagun taldeek ospakizun berean par-

tekatzea. Hortik dator gaztainak izatea jaialdiko ikur nagusi.

Jatorria: 'Ondra-jana'

Tradizio honek mendeak ditu, eta jatorria 'ondra-jana' delakoan topa dezakegu: urtean zehar hil diren senide eta gertukoak omentzeko egiten zen otordu sinbolikoa. Juan San Martin 'Otsalar' eibartar idazleak 1976an Donostiako Hoja del Lunes egunkarian azaldu zuenez, Eibarren, Ermuan eta Soraluzen iraun du ohitura horrek, azken mendean nekazaritzako bizimodua bigarren planoan geratu arren. "Industriagintzak gora egin ahala, nekazaritzako ohiturak galduz joan dira -idatzi zuen San Martinek-, baina Gaztainerre egunak hiriguneetan ere bizirik dirau."

Egunaren inguruko eztabaidak

Gaztainerre eguna ez da azaroko egun finko batean ospatzen Euskal Herri osoan. Hala ere, Eibarren badago adostasuna: ospakizuna Arimen Egun osteko bigarren astelehenean izaten da.

Horrela jaso zuten Toribio Etxebarria eta Juan San Martin idazleek. Etxebarriak bere hiztegiaren argi utzi zuen: “Segundo lunes (después del día de Ánimas) del mes de noviembre.” San Martinek ere baieztatu zuen: “Jan-edan zaleentzat hain da egun ona, baziren astelen bietan behar zela esaten zutenetarik ere (...). Iritziak iritzi, Arimen egunetik bigarren astelehenean ospatzen da”.

Ospakizuna lehen eta orain

Aintzinean, Gaztainerre batez ere gizonen ospakizuna zen. Familiako gizonak —aita, seme nagusiak edo kuadrillako lagunak— elkartzen ziren arratsalde-gaua luzatuko zuen solasaldian. Ostatueta edo su inguruan, ipuin, kanta eta zirikaden artean, marraskiloak eta gaztainak jaten zituzten.

Azken hamarkadetan, ohitura ireki eta partekatu egin da. Familia osoak eta lagun taldeak elkartzen

dira gaur egun, eta kuadrilla askok elkarte gastronomikoetan egiten dute afari-merienda luzea, batzuetan arratsaldeko lehen orduetatik hasita. Menua ia beti bera izaten da: marraskiloak saltsan, txistorra edo bestelako jaki goxoak, eta postrerik bereziena: gaztaina erreak.

Azken urteetan, ospakizuna eskoletara ere zabaldu da. Ikastetxeetan gaztainak banatzen dituzte, eta ikasleek bertsoak kantatzen dituzte, ohitura belaunaldiz belaunaldi transmititzeko.

AEKren kalejira

Baina haurrak ez dira kantuan aritzen diren bakarrik. AEK euskaltegiak ere urtero antolatzen du kantujira herrian zehar, ikasleekin eta herritarrekin batera. Aurten ere, arratsaldeko 19:00etan dute zita Paloma tabernan, eta handik abiatuta, euskal kantak abestuko dituzte Musika Eskolako trikitilari eta pandero-joleen laguntzaz, Eibarko erdigunean zehar (urtero auzo desberdin batera eransten dira). Kalejiran giroa berotutakoan, merienda antolatu du euskaltegiak Depor elkartearen. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

*Antzinatikan datorkigu ta
gorde dezagun ohitura,
zenbaiten ustez ez izan arren
hau ere bada kultura.
Etenik gabe heldu zaigunez
orain jarraitzea gura,
ondorengoei erakutsirik
har dezatela ardura.
Urtero behintzat elkar gaitezen
gaztain errien kontura.*

eibar.org



FUNEUSKADI
Funeraria mugikorra

FUNERARIA MUGICA
Funeraria mugikorra

TANATORIO EIBAR

TANATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar:
Otaola, 27

Elbarko bulegoa:
Bidebarrieta, 20

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Elgoibar:
Kuxilon, s/n. SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Ermuako bulegoa:
Marqués de Valdespina, 16

leku berri bat

Ego-Gain, 2
943 558728

TOPA-LEKU
taberna

egunero elkarrekin egoteko

ek!

**Zure publizitatea
herriko aldizkarian**

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

Basalgo parke eolikoaren proiektuak kezka piztu du Debarrenean

Testua eta argazkiak **IRATI ALVAREZ**
Bideoa **YANIRE SAGREDO**

Proiektuaren inguruan eta izan ditzakeen ondorioei buruzko kezka azaldu dute hainbat herritarrek. Gardentasun falta salatu dute. Egitasmoak Eibar, Elgeta, Soraluze eta Bergarako udal-mugarteetan eragina izango luke. Proiektuak aurrera egin ez dezala eskatu dute.

BIDEOA



Debabarreneko hainbat herri zeharkatzen dituen mendikatean jarri asmo duten aerosorgailuen berri izan bezain pronto, larritasuna piztu da herritarren artean. Proiektuaren txostena urriaren 17an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu bazen ere, gutxik dakite zertan datzan parke eolikoak eta zer ondorio ekarriko lituzkeen. Herritarrek informatuta egon behar direla sinetsita eta Eibarko Baso Biziak elkarteari propio eragiten dion proiektua izanik, bilera ireki eta parte-hartzailea egin zuen eguaztenean elkartean.

Joseba Zuzaeta bergararrak (Larramendiko arnasa) eta Manex Arzuagak (Eibarko Baso Biziak) hartu zuten hitza, nagusiki. Txosten publikoaren xehetasunak, proiektuaren kontrako argudioak eta proiektua bertan behera uzteko zer egin daitekeen azaldu zuten. Gainera, “mehatxuari” aurre egiteko lehen hazia erein zuten bileran bertan, plataforma bat sortuz.

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren eskumeneko proiektua da Basalgo Parke Eolika. Arena Power Solar 10 SLU enpresak aurkeztu du. Hainbat herri zeharkatzen dituen mendikatean guztira sei aerosorgailu jar-tzea aurreikusi dute: hiru Bergaran, bi Eibarren eta bat Soraluzen. Egitasmoa gauzatuko baldin bada obra zibila Elgetatik egingo denez, bertako lurretan ere eragina izango luke. Oraingoz ez dago behin betiko baimenik, ezta egikaritzefaserik ere. Bestalde, abian da alegazio-epea eta 30 egun balioduneko denbora-tartea du. Eibarko Udalak jakinarazi du jada epea luzatzeko eskatuko duela.

Informazio berria zabaldu zuen bileran Eibarko Baso Biziak taldeko kideak: “Hasieran Basalgoko parke eolika zuen izena proiektuak. Orain, aerosorgailu bakoitza parke eoliko bat bilakatu da: «PE Cote 26», «PE Galera 26», «PE La Carmelita 3», «PE Lima», «PE Los



Herritar ugari bildu ziren eguaztenezan Kultun.

Pistoleros 4» eta «PE Paloma 5». Diotenez, proiektuak izendatzera-ko orduan toponimiak ez erabiltzea "ez da kasualitatea".

Modu berean, lehen proiektuaren sustatzaile bakarra Arena Power Solar 10 SLU enpresa zen. Orain, aerosorgailu bakoitza parke eoliko independente gisa erregistratu dute. Aipaturiko sevilako enpresarenak dira guztiak, baina izen eta enpresa desberdin batekin izendatu dituzte."

Txostenen informazioaren arabera, aerosorgailuen potentzia 28,00 MW-ra jaitsi dutenez, 'Nordex' enpresarenak izango direla diote. "Altuera-euskarria 112 metro, eta guztira, 200 metro izango lirakeke. Beraz, Untzaga plazako (77 metro) dorrea ia hiru aldiz izango da aerosorgailu bakoitza. Beste haize errotekin alderatuz, Oizekoek, esaterako, guztira 60 metro dituzte" azaldu

du Arzuagak. "Horrek esan nahi duen guztiarekin. Aerosorgailu bakoitza zutik eusteko pentsa zelako obra egin behar den. Eta gero, materiala garraiatzerako bidea ere bai. Azurtzatik Topinbururako bideak gaur egun 3 metro ditu, baina 66 metroko piezak garraiatzeko trailerra egin beharko da. Imaginatu nolako kamioia pasa beharko den eta horretarako nolako txikizioa egingo den" gehitu zuen Zuzaetak. Adibideak eman zituen Arzuagak. "Dokumentuan jasotzen denez, Elgetan eta Azurtzan saihezbide bat egingo dute materiala igaro ahal izateko".

Jasotako datuez gain, proiektua gauzatzerako orduan ere badute kezka. "Proiektua aipaturikoa da, teorian. Baina gero, ez dago inor hori egingo dela ziurtatu, zuzendu edota gidatuko duenik. Nork bermatzen du beteko direla proiektu

Aerosorgailu bakoitza parke eoliko bat bilakatu da, ezizen berezi batekin: "Ez da kasualitatea"

Proiektua gauzatzerako orduan ere badute kezka. "Nork bermatzen du beteko direla"



Bileran txostenaren inguruko xehetasunak azaldu zituzten.

tuan esandakoak? Ez dago inor. Horrelakoetan enpresek nahi duten guztia egiten dute proiektuaren lurretan zein ingurukoetan, lurrak pribatuak izan edo ez.” salatu zuen Zuzaetak.

Bileran nabarmendu zutenez, enpresak harremanetan jarri dira proiektuaren zati bat haien lurretan egingo duten hainbat kalteturekin. Beste batzuek, ordea, salatu dute hori ez dela haien kasua eta informazioa falta zaiela. Eibarko Baso Biziak elkarteko lurak ere hartzen ditu proiektuak.

Alegazioak eta plataforma berria
Proiektua geldiarazteko bidean, alegazioak modu bateratuan aurkeztearen alde agertu dira. “Alegazioak legalki edonork aurkez ditzake, baina talde gisa izango dugun inpaktua eta indarra handiagoak izango dira”. Horretarako, ingurumen arloan antzeko kasuetan parte hartu duten adituak laguntzeko

prest daudela azaldu zuten. “Alegazio desberdinak eta ongi landuak egitea komeni zaigu, eta horretarako badugu esperientziadun jendea”.

Herritarrak proiektuaren aurka antolatzeko plataforma bat sortzea ere proposatu zuten. Izen-zerrenda bat zabaldu dute, eta azaldu zutenez, edozeinek bere ekarpena egin dezake. Laster emango dute plataformaren berri.

Udalak alegazioak aurkeztuko ditu
Eibarko Udalak adierazi du proiektuaren espedientea aztertzen ari dela, eta ikuspegi tekniko batetik alegazioak aurkeztuko dituela inpaktuak murrizteko eta neurri zuzentzaileak eskatzeko. Halaber, alegazio-epea luzatzeko eskatuko du, herritarren parte-hartzea bermatzeko. Horretarako, bi saio informatibo antolatu dira azaroaren 13an Coliseo antzokian: 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara, elebitan.

Enpresa hainbat kalteturekin harremanetan jarri da. Beste batzuekin ez, oraingoz

"Talde gisa izango dugun inpaktua handiagoa izango da. Gainera, ingurumen arloan ibili diren adituen laguntza ere badugu"



Orbeatarren kapera,
Urkusuan. Orbea industria-
famiariaren lurretan eraiki eta
1927an inauguratu zuten.
Herritarrentzat sarbidea
Arragueta kalean zegoen.
GURE GIPUZKOA-INDALECIO
OJANGUREN FUNTSA

Orbea lantegia nolakoa zen.
Euren ermita propioa zuten.
Orbeatarrak ezagunak eta
dotoreak ziren. Dotore
janzten ziren. Etxe ingurua
itxita zeukaten. Askok aldatu
da ingurua.

Orbea lantegia eta orbeatarrak

Tomasa Idarraga Zulaica
(1914 – 2008)



Arragueta kalean jaio zen, baina artean umea zela Txontako Telleria kale-baserrira joan ziren bizitzera. Ama elgoibartarra zuen; aita, berriz, eibartarra, Urkuzei baserrikoa. Txonta eta Urkizu ingurua oso ondo ezagutzen zituen eta azalpen interesgarriak ematen ditu bertako toponimia, baserri, eraikuntza eta lantegien inguruan.

Tomasa Idarragari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Eta ze juaten zian, inguruko taillarretatik?] Bai, hamen Orbeana dana zan taillarra. Bai. Orbeanekua dana zan taillarra. Oin etxiak daozena, dana taillarra. [Ondo ezautuko zenduan zuk hori, ez?] Bai, erregular! [Zelakua zan?] Ederra. Pasialekua? Guk *Pasialekua* esaten detsau. Eken zerakin... zeriakin euren taillarra eken. Eta etxia be baeken... bueno, oin dauan tokixan pentsatzen dot. Elizia eon zan han. [Euren elizia zeken?] Bai, eurak ein eben. [Ezaunak izango zian, ez?] Enee! Bai! Orduan elegantiak zian horrek! Bufaa! [Ze juaten zian, jantzitta ta...]. Jo! *Como caballeros* (...)[Andrazkuak be juango zian...]. Jo! Elegantiak. Josefina Orbea ta. Jo! Gaiñera, eken harek euren etxian zerian, zera, arbola eder bat ta (...), itxitta holaxek, Barakaldoko etxian, hartu ta gorutz itxitta eken. Dana diferentia oin. Jesuuus! Dana diferentia. Baiña orduan edarra zan.

“Ondo, erdipurdi ala gaizki joan zaitezke, baina Boulevardean indar guztia ateratzen zaizu”

IKER LASUEN ETA AITZIBER URKIOLA • Korrikalariak



Ia 28.000 korrikalarik egingo dute Behobiatik Donostiako bidea domeka goizean. Horien artean eibartar asko egongo dira. Urtero ehun eibartar inguru izaten dira Behobiako irteeran eta aurren ere ohiturari eutsiko diote askok; beste batzuk, aldiz, estreinakoz parte hartuko dute. Haientzako baliagarriak izan daitezke lasterketaren inguruan Iker Lasuenek eta Aitziber Urkiolak kontatu dizkigutenak.

BIDEOA



Testua **EKHI BELAR**
Bideoa **YANIRE SAGREDO**

Behobia-Donostiaren 60. edizioa ospatuko da aurren eta elastiko morea banatu dute 50/50 Egin dezagun posible' leloarekin. Izan ere, aurtengo edizioako parte-hartzaileen erdia emakumezkoak izatea zen euren helburua eta, lortu ez duten arren (%33,86 izango da), inoiz baino emakume gehiagok hartuko du parte. Aitziber Urkiola, azken bi urteetan huts egin ondoren, bertan izango da aurren. Iker Lasuen, bestalde, Eibartik joaten den tropelaren zati handi bat garraiatzen duen autobusa antolatzen ibiltzen da eta, aurren parte hartu ezin izango duen arren, zeharka begiratu dio bertan gertatzen denari.

Badakizue zenbat Behobia-Donostia lasterketatan parte hartu duzuen?

AITZIBER: 12 ediziotan parte hartu dut. Haurdunaldiengatik eta pandemiarengatik ezin izan nintzen egon, eta gero, pare bat ediziotan ez parte hartzea erabaki nuen. Egia da bi urte horietan, Behobiako data helderakoa, pena eman didala bertan ez egoteak eta aurren horregatik animatu naiz berri.

IKER: Aurtengoa nire 10. edizioa izango litzateke, baina zoritxarrez ezin izango dut egin, lesio bat tarteko. Pena handia ematen dit bertan ez egoteak.

Normalean, nola egiten diozue aurre lasterketari? Zein helbururekin?

AITZIBER: Behobian dudak markarik onena (1:22:03) hobetzeko helburuarekin noa. Ia hobetzen dudak eta, ez badut lortzen, ez da urteko helburua, beraz lasai. Aurtengo triatloi denboraldia irailera arte luzatu dut eta Behobiarekin amaiera emango diot. Entrenamendu askorekin heltzen naiz, agian pixka bat nekatuta, baina gogotsu.

Gertu ikusten duzu marka hobetzea?

AITZIBER: Hor-hor egon naitekeela uste dut. Ateratzen dena ondo egongo da.

Azkenean, lasterketa batean faktore asko sartzen dira jokoan. Den-dena ez dago zure esku.

AITZIBER: Hori da, jende asko dago, eguraldiak garrantzia du, lesioak, triapak nola dauden... Tripekin izan ohi ditut komerriak batzuetan.

Zuk Iker, nola egin ohi diozu aurre?

IKER: Nire kasua ezberdina da. Bederatzi aldiz hartu dut parte eta nire marka onena 1:52:00 da. Hortik ez naiz jaisten, ez dakit zergatik, beste maratoni erdi batzuetan marka hobea dut-eta. Ez dakit besteak lauagoak direlako edo, baina Behobia txarto kudeatzen dut. Dena dela, niretzat Behobia urtero egin beharreko lasterketa



Ikerrek aurten ezin izango du lasterketan parte hartu, baina Aitziber Behobiara itzuliko da bi urtez parte hartu gabe egon ondoren. EKHI BELAR

bat da, garrantzi asko du urtero bertan egoteak. Marka hobetzen badut, pozik, baina hala ere egin egin behar dut, horrek esan nahi baitu urtean zehar korrika egingen ibili naizela.

Lasterketaren egunean, hasi baino lehen, baduzue ohitura edo erritualik?

AITZIBER: Komuniket pasatzea, eta hiru aldiz (barreak). Ez dakit zergatik, baina hiru aldiz joan banaiz, ondo noa.


IKER: Antolakuntzakoek horregatik jarriko dute hainbeste komun irteeran. Demaseko ilarak egoten dira! 20 lagun izan ditzakezu aurretik eta ez doaz txiza egitera, eh! Urduritasun kontua izan ohi da. Nik neuk ez dut ezer berezirik egingen hasi aurretik. Kafea hartzen dut, lagunekin egon... baina lasterketa amaitzerakoan bai, emaztea eta umeak etortzen dira eta han bazkaltzen dugu. Azkenengo edizioetan oso eguraldi ona egin du eta itsasoan bainua hartzen amaitu dut. Demaseko hartzarekin, baina hankak erlaxatzeko, bikain.

Biak joaten zarete Eibartik irteten den autobusean. Iker, zu ibiltzen zara hori antolatzen. Nola hartu zenuen ardura?

Aurten, 64 lagun joango dira Eibartik antolatzen den autobusean Behobia-Donostiara

IKER: Orain dela lau urte hasi nintzen autobusa antolatzen. Lehen, Manolo Dosunak zuen ardura. Askasibarren orri bat lagatzen zuen eta bertan apuntatzen zen jendea. Berak laga zuenean, mutil batek hartu zuen ardura urtebetez eta hurrengo urtean apuntatzeko deitu nionean, esan zidan ez zuela antolatuko. Orduan, Behobiara nola joan aztertzen hasi nintzen, Eibarbusen aurrekontua eskatu eta proposamena sare sozialen bitartez zabaldu nuen. Autobusa ez zen bete, baina taldea sortu genuen eta joan ginen, eta hurrengo hiru urteetan bete da, eta lagun batzuk itxaron-zerrendan gelditu dira. Aurten, 64 lagun joango dira Eibartik autobusean.

Zer du Behobiak hain lasterketa esanguratsua izateko?
AITZIBER: Askok esaten duten bezala: jendea. Kilo-



Eibartar ugarik hartzen du parte urtero Behobia-Donostia lasterketan.

metro guztietan dago jendea animatzen eta hori asko estimatzen da. Beste lasterketa batzuetan helmuga inguruan pilatzen da jendea eta kitto. Eta hori Euskal Herrian kirolerako zaletasuna dugula kontuan hartuta! IKER: Ados nago. Hori oso polita da. Behobiatik Donostiara, errepide ertzean ez dago hutsunerik. Donostiko Boulevardean sartzea pasada bat da. Ondo, erdi-purdi ala gaizki joan zaitezke, baina hor indar guztia ateratzen zaizu.

Animoak ondo etorriko dira, zeren eta 20 km dira eta ibilbidea ez da batere laua.

AITZIBER: Ez da ibilbiderik errazena.

IKER: Txarrena izaten da, nire kasuan behintzat, oso azeleratuta hasten bazara, Mirakruz gainean ikusten duzula zeinen txarto kudeatu duzun lasterketa (barreak).

Hainbeste alditan eginda, ibilbidea ezagutzeak laguntzen dizue?

IKER: Nik ez du asko ikasi! Bederatzi aldiz irten eta beti egin dut berdina (barreak). Agian beste maila batean dabiltzanak...

AITZIBER: Niri ere gertatzen zait, ez pentsa! Fuerte hasten zara, emozioarekin, eta erregulatu egin behar

da igoeretan, jaitzieretan sakatu... Ondo kudeatu beharreko lasterketa da.

Zein aholku emango zeniokezte aurtengo Behobia-Donostia lehen aldiz egingo duen bati?

IKER: Amateur bezala, esango nioke pixka bat kontrolatzeko eta nik egiten ditudan erruak ez egiteko. Beti hasten zara zuk ahal duzuna baino abiadura handiagoan eta gero ordaintzen duzu. Niri Mirakruzen gertatzen zait, 17. km-an, baina beste bati 10. km-an gertatu ahal zaio eta gero beste 10 km ditu egiteko. Nik 3 km pena ematen, tira, egin ditzaket, baina 10 km horrela egitea oso gogorra da.

Jatekoa eta edatekoa ere ondo kudeatu behar da edo ez da hain lasterketa luzea hortaz kezkatzeko?

AITZIBER: Bai da arlo garrantzitsua eta, bero asko egiten badu, are gehiago. Bidean dauden anoa-postuetan ura edo edari isotonikoak hartzea eta 13. km inguruan gatzeta eta azukrea duen gel bat hartzea garrantzitsua da. Aurreko egunetan ere garbi jatea, ondo hidratatzea... garrantzitsua da.

Eta gozatzea!

BIEK: Noski, hori batez ere!



Xaboiak egiten ikasteko tailerrean jardun dute Ongietorriko partaideek

Martitzenean xaboiak egiteko ikastaroa antolatu zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteak Ongietorri programako kideentzat. Dozena bat lagunek jardun zuten xaboia egiten eta, teknika bera baina itxura, usain, kolore eta apaingarri desberdinak erabiliz, xaboi pare ederrarekin itzuli ziren etxera bi ordutik gorako saioan jardun eta gero. Euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko aukera eskaintzen du ...eta kitto! Euskara Elkarteak Ongietorri programaren bidez eta horretarako, astean behineko saioez gain, hainbat ekintza antolatzen ditu urtean zehar, hala nola martitzeneko ikastaroa edo Euskal Herriko txoko eta ohiturak ezagutzeko txangoak.



Ongietorriko kideek programa sustatzeko bideoa egin dute

Ikasturte hasierarekin batera hasi zen ...eta kitto! Euskara Elkarteak eskaintzen dituen programetan ize-na emateko epea. Horien artean dago Ongietorri ere eta egiten dutena erakutsi eta jende gehiagorengana ailegatzeko asmoarekin, bideo bi egin ditu ...eta kitto!-k. Bideo horietan Ongietorriin diharduten hainbat



kidek hartu dute parte. Batean, egiten dutenaren berri euskaraz ematen dute eta bestean, berriz, nork bere hizkuntzan: gaztelera, frantsesa, arabiera eta wolofa. Momentuz bigarren argitaratu du euskara elkarteak eta ondoko QR-aren bidez ikus daiteke.



Txakolina eta gaztaren inguruko saioa atzeratu egin da

...eta kitto! Euskara Elkarteak azaroaren 18rako aurreikusita zuen txakolina eta gaztaren inguruko saioa bertan behera gelditu da, baina elkartetik adierazi dutenez aurrerago jarriko dute beste data bat. Seguruenik udaberri aldean antolatuko da saio berria. Bien bitartean, abenduan tailer bi antolatuko ditu ...eta kitto!-k Illunabarrian programaren barruan, txapak, intsigniak eta bestelako osagarriak egitekoa bata eta kandelak egitekoa bestea.



IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA

Amorrua, alde batetik zein bestetik

Jakina da emakume eta pertsona transen aurkako indarkeriak ez duela iraungitze datarik. Eguneroko ogia da: kalean, lanean, eskolan, etxean, lagunartean, familian eta sare sozialetan. Bizipen partekatua da gurea: kontzientzia piztu, antolatu, eta ekin. Baina bidean –nola ez– nekea eta, batez ere, amorrua pilatzen doa.

Amorrua sentitzen dut lagun batek eraso bat jasan duela entzutean. Amorrua, salaketa baten aurrean “gizon baten bizitza hondatzen dela” diotenengan. Amorrua, jarrera eta ekintzak interpelatzean hausnarketa egin beharrean defentsa edo erasoarekin erantzuten dutenengan. Eta amorrua, gizartea aldatzeko ardura berriro ere emakume eta disidenteen sorbaldetan bakarrik uzten denean.

Hori guztia nekezagoa da txapa morea paparrean soilik janzten duten gizon batzuen kasuan, beren pribilegioei uko egin –edo behintzat kontzientzia hartu– gabe jarraitzen dutenean. Sinboloa paparrean izatea ez baita nahikoa. Sinboloak ez du eguneroko jarrerarik ordezkatzeko.

Bien bitartean, ideologiaren espaloia beste aldean, gero eta gehiago zabaldu dira feminismoarekiko diskurtso ukatzaileak. “Indarkeriak ez du generorik”, “feminismoak urrunegi jo du” eta “asmakizun ideologikoa da” diotenak. Interneten eta sarean, bereziki gazteen artean, zabaldutako mezu arriskutsu horiek ez dira kasualitatea: ultraeskuinak bultzatzen ditu, mundu mailakoa den baina gure auzoetara ere iritsi den testuinguru batean.

Gauzak horrela, bi ondorio dakartzat. Batetik, espaloia beste alde guztietan, eraso eta jarrera matxisten aurrean, autodefentsa feministaz erantzutea da bidea. Bestetik, mezua argia da: jarrera aldatzea, ikasteko prest egotea eta behar denean barkamena eskatzea guztion ardura da. Feminismoaren zama ez da zapalduon bizkar bakarrean utziko dugun astoa.

Deseraikitze bidea denona da.

“Amorrua sentitzen dut gizartea aldatzeko ardura berriro ere emakume eta disidenteen sorbaldetan bakarrik uzten denean”

Bizikleta eta errobera artean ibiltzeko erakusketa

Atzo zabaldu zuten aldi baterako erakusketa berria Eibarko Armagintzaren Museoa. Bizikletek eta Eibarko industriak arte-sorkuntza garaikidean izan duten eragina erakutsi nahi zaie bisitariei *Errobera artean* erakusketan. Otsailaren 1era arte egongo da ikusgai, Museoaren ohiko ordutegian: 16:00etatik 20:00etara, eguaztenetik zapatura; eta 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara domeketan.

SILBIA HERNANDEZ

Atzoz geroztik bisitatu daitekeen erakusketa 2026an Eibarko Txirindulari Elkartearen eta GAC enpresaren mendeurrenen inguruan egingo diren ospakizunen abiapuntua izango da, bide batez.

Antolatzaileen berbetan, “bizikleta eta mugimendua inspirazio iturri izan dira garai guztietako artistentzat, eta pintura, eskultura eta instalazio ugari sortu dira horien inguruan. Obra handiak egin dira, hala nola Henri Toulouse Lautrecen *La cadena Simpson* (1896), Natalia Goncharovaren *El ciclista* (1913), Fernand Legerren *Ocio sobre Fondo Rojo*, Marcel Duchampen *Rueda de bicicleta* edota Picassoren *Cabeza de toro*”.

Bizikletekin loturaren bat duten artelanak bildu dituzte erakusketa honetan, hainbat artistak sortutakoak. Parte-hartzaileen zerrendan Jose Zugasti, Anibal Tejada, Baroja Collet, Jacobo Castellano, Javier Rodríguez Perez-Curiel, Dora Salazar, Marina Barrena, Fernando Beorlegui, Leire Kareaga, Imajinez, Iñaki Garmendia eta Derek Kreckler daude, besteak beste.

Iñaki Uriarteren hitzaldia azaroaren 19an

Erakusketa honekin bat eginez, azaroaren 19an *Bizikleta, makina mugikorra, azkarra eta ederra* hitzaldia emango du Iñaki Uriarte arkitektuak. Portaleko areto nagusian izango da, 19:00etan, eta sarrera libre izango da.

Hitzaldia baino, irudi bidezko paseo bat izango da. Bizikletaren berrehun urteko historiari eta haren legatu



Jose Zugasti eibartarrak 1986an egin zuen *Txirindularia* eskulturak egiten die harrera Museoko bisitariei 2023ko urriaz geroztik, Gipuzkoako Foru Aldundiarena da eskultura, baina hamar urterako laga dio Eibarko Museolari, bertan erakusteko. SILBIA HERNANDEZ

kulturalari errepasoa egingo zaio saioan. Bizikletaren aurrekarietatik, 1817an Alemanian asmatutako *Draisienne* izeneko tramankulu mekanikotik abiatuko da narrazioa, gaur egunera ailegatu arte: “Bi mendeko tarte horretan, hainbat aurrerapen tekniko gertatu ziren, zeintzuen ondorioz, makina mugikor, azkar eta are eder bat sortu zen: *Vélocipède* izeneko ibilgailua. Horrekin batera, neologismo berri bat jaio zen hainbat hizkuntzatan, makina berria izendatzeko: *vélo/bicyclette, bicicleta, bizikleta, bicicletta* edo *bicycle*”.

Bizikletaren erabilerak ohitura sozial berriak ekarri zituen: lanera bizikletaz joatea, bizikletaz paseatzea, mugitzeko askatasuna izatea, emakumeen emantzipazioa, txirindularitzarako arropa egokia erabiltzea, abiadurarekiko erakarpene eta lehiarako gogoia, eta, hortik txirindularitza kirol gisa finkatzea. Hitzaldian, halaber, bizikletaren eragin kulturalari buruz arituko da Uriarte. Besteak beste, gai hauek jorratuko ditu: emakumearen emantzipazioa bizikletari esker; txirindularien arteko hasierako desafiokoak, eta handik gutxira kirol lehiakor gisa lortu zuen arrakasta, museoratzatzea eta memoria; bai eta bizikleta sortzaileen inspirazio-iturri gisa erabiltzea ere.

Oxygen proiektuak irabazi du aurtengo On Ekin sari nagusia

Testua **EKHI BELAR**

Joan den asteko eguenean, Ekingune elkarteak ematen dituen On Ekin sariak banatu zituzten Errebal Plazan egin zuten ekitaldian. XIII. edizioa ospatu da aurten eta guztira bederatzi ekintzailatza-proiektu aurkeztu dira bertara. Sari nagusia Ermuko Oxygen S. Coop. Txikia proiektuak eraman zuen eta Fermin Calbeton kalean egoitza duen Xabalo dendak eskuratu zuen publikoaren saria.

Julia Quintana eta Sergio Nieves dira Oxygen proiektuaren sortzaileak. Ekintzaile peto-petoak dira biak, aurretik beste zenbait proiektu atera baitituzte aurrera. Orain, euretako bakoitzak gustuko dituzten arloak elkartu eta elkarrekin ekingo diote proiektu berriari, Ermuan.

Labur azalduta, Oxygen azken belaunaldiko gimnasioa eta estetika ekologiko eta beganoko kabina konbinatzen dituen ongizate-zentro integrala da. Bertan, hainbat zerbitzu eskainiko dituzte, hala nola saioak, entrenamendua, tratamendu estetikoa eta osasuna eta ingurumena errespetatzen dituzten produktuak, oreka eta ongizate esperientzia oso bat sortuz. “Ariketa fisikoa egitera joaten garen arren, gimnasiora oxigeno bila eta deskonektatzera joan ohi gara”, azaltzen digu Sergiok, hortik proiektuaren izena. Juliak zehazten duenez, “mundu guztia joateko moduko espazio bat sortu nahi dugu, ez dadila izan indartsuen edo gihartsuen toki bat bakarrik”.

Ongizate zentro integrala

Gimnasioari dagokionez, indarra lantzeko hainbat makina jarriko dituzte, eta ‘kardio’ ariketak egiteko bizikletak eta abar ere. Zentzu horretan, eta hasiberriek edo gimnasioetan esperientzia handia ez dutenek konfiantzaz aritzeko, Sergioren asmoa da erabiltzaileek hilabete batez edo bitan klase indibidualak jasotzea eta, gero, jarraitu beharreko plana behin zehaztuta, bakoitzak bere aldetik jardutea. “Norbaitek pertsona bat gainean behar badu gauzak egiteko, berdin jarraituko dugu, baina denbora horretan ariketak egiten ondo ikasi dezakete eta euren kabuz jarraitu”, bere ustez.

Baina Oxygen ez da gimnasio hutsa izango. “Adibidez, errekupe-razioaren kontuan sakondu nahi dugu”, esan digu gauregun bi estetika-zentro dituen Juliak. Horregatik jarriko dute estetika ekologiko eta beganoko kabina. “Askok pentsatzen dute estetika kabina bat eskuak atontzeko edo horrelakoetarako bakarrik dela, baina ez. Depilatzeko,



Ezkerretik eskumara, Sergio Nieves eta Julia Quintana (Oxygen), eta Ion Gabilondo (Xabalo). EKingUNE

gorputz-tratamenduak egiteko, muskuluak errekuiperatzeko... ere balio du”.

Aipatutakoaz gain, gauza gehiago izango ditu Oxygenek: solarium berezi bat (terapia birsortzailerako), sauna bat (“Azken ikerketek diote beroak asko laguntzen duela errekuiperatzen kirola egin ostean”, diosku Juliak), ‘passing’ gune bat (kulturismoa egiten dutenentzat), eta abar. “Azken urteotan, gero eta gizon gehiagok zaintzen dute arlo estetiko eta gimnasia joateko ohitura dutenek arlo biak uztartzeko aukera izango dute”, esan digute.

Ermuan kokatuta

Horra heltzeko bidea ez da erraza izan, baina Juliak eta Sergiok ez dute amorerik eman eta, gainera, zorioneko dira gertatu zaienarekin. “Hasiera batean, beste lokal bat hartu behar genuen Ermuan. Dena itxita geneukan, baina azken unean dena erori zen eta beste bat bilatu behar izan genuen. Zorionez, lokal handiago bat aurkitu genuen, parean aparka-

lekua duena, merkeago gainera...”, azaldu digute.

Hain zuzen ere, Ermutik Aixolako presara doan bidearen hasieran egongo da kokatuta. Dena dela, oraindik obrak egin behar dituzte eta berandu jota Aste Santua baino pixka bat lehenago zabaltea da euren asmoa.

Ezer hasi baino lehen, baina, jaso dute bultzada handi bat On Ekin sariarekin eta proiektuak etorkizun polita izan dezakeela erakusten die horrek. Epaimahaiaren aitortzaz gain, 2.000 euroko saria jaso dute eta emozioz hartu dute.

Egueneko ekitaldian, Sergiok prestatutako bideoa jarraituz aurkeztu zuen proiektua Juliak, eta epaimahai konbentzitzea lortu zuten. Sergio bideo eta argazkigintza profesionala da eta alderdi hori ere bultzatu nahi dute Oxygenekin. “Sare sozialak oso garrantzitsuak dira eta horien bitartez aholkuak eman, gimnasioen inguruko mitoak desegin... nahi dugu”, esan digute. Laster izango dugu euren berri.

Azken belaunaldiko gimnasioa eta estetika ekologiko eta beganoko kabina konbinatzen dituen ongizate-zentro integrala izango da Oxygen

Fermin Calbeton kalean dagoen Xabalo dendak eraman du publikoaren saria



Klub Deportiboko xakelariak nagusitasunez ari dira

EKHI BELAR

Eibarko Klub Deportiboko xake jokalariek maila bikaina dihardute erakusten Gipuzkoako Bakarkako 3. Mailako Xake Txapelketan. Azken bost asteetan zehar Elgoibarren jokatu da txapelketa hau eta, azken partidaren faltan, Raul Fernandez da liderra 3,5 punturekin. Bere atzetik Yerai Fernandez eta Mikel Saenz ditu, 3 punturekin. Beraz, euren artean erabakiko da nor den Gipuzkoako txapeldun berria eta nortzuk izango diren mailaz igotzeko txartela lortuko dutenak.

Txapelketaren azken txandan, Raul eta Yerai Fernandez aita-semeen arteko partida jokatu da, eta bigarren mahaian Mikel Saenz eta Unax Andreu ari-tuko dira nor baino nor.

Deporreko gainontzeko jokalariek ere txapelketa bikaina egiten dihardute eta urtariletik aurrera jokatu den taldekako ligarako prestatze-fase hau modurik ederrenean amaitu nahi dute.

Irati Agirreazaldegi Azkoitian irabazle

Irati Agirreazaldegi Eibarko Klub Deportiboko xakelariak Emakumeen V. Anaitasuna-Kakute Txapelketa irabazi zuen urriaren 26an. Guztira, sei lagunek hartu zuten parte lehiaketan eta eibartarrak nagusitasunez lortu zuen garaipena. Agirreazaldegi zazpi puntu lortu zituen guztira. Ligaxka erako txapelketa jokatu zuten bi itzultira eta, Deporrekoen berbetan, “giro ederrean aritu ziren parte-hartzaile denak”.



Ehun Mendien Anaidiaren Eguna Eibarren

E.B. Arraten egingo dute aurten Ehun Mendietako Anaidiaren Eguna. Azaroaren 23an, 9:00etan emango zaio hasiera eguneko egitarauari, parte-hartzaileak Arraten elkartzuz. Handik Kalamuara (770 m) joko dute eta, jaisterakoan, “anaia-arreba berriei” ongi etorria egingo diete. 12:30ean, diplomak

banatuko dituzte eta pintxo-potea egingo dute. Ehun Mendien Lehiaketa amaitu duten 109 mendizale-ri omenaldia egingo zaie. Horien artean, Ehun Mendien Anaidian sartu izana egiaztatzen duen diploma jasoko duten 54 kide berrik, eta “ehundune” berriak osatu dituzten 55 pertsona gehiagok ere bai.



Hodei Ezpeleta bigarren izan da, beste behin, Euskal Herriko Txapelketan

E.B. Domekan, azaroak 2, Euskal Herriko Aizkolari Txapelketa jokatu zen Azkoitiko Gurea pilotalekuan eta Iker Vicentek eraman zuen txapela. Laugarrena Otsagabiakoarentzat. Hodei Ezpeleta 'Bihurri', bestalde, bigarren postuarekin konformatu behar izan zen beste behin, baina ezer gutxi egin ahal izan zuen nafarraren nagusitasunaren aurrean.

Lau kana-erdiko, lau 60 ontzako eta lau oinbiko ahalik eta azkarren

moztu behar zituzten aizkolariek, eta Vicentek hasieratik hartu zien aurea lehiakideei. Horrela, amaieran, 39 minutu eta 46 segundoko marka ezarri zuen txapeldunak, Hodei Ezpeletari lau minutuko alde ateraz, honek 43 minutu eta 47 behar izan zituelarik. Hirugarren Mikel Larrañaga izan zen (44:09), laugarren Txikia IV.a (45:42), bosgarren Julen Gabirondo (48:05) eta seigarren Xabier Zaldia (48:38).

Bigarrenarekiko alde zabaldur du Malape

Lehen bi sailkatuen arteko partidua jokatu zen zapatuan, azaroak 1, eta liderra ateratu zen garaile. Malape Tabernak nagusitasunez irabazi zion Bar Maremi, 3-0, eta sailkapenean ihes egin du. izan ere, orain 21 puntu ditu, Bar Maremek baino bost gehiago. Asteburu honetan, osterar, Malape Tabernak atseden hartuko du eta Bar Maremek gerturatzeko aukera izango du. Horretarako, Adahi Etxegiri irabazi beharko dio.

Azken bi sailkatuek ere elkarren aurka jokatu zuten eta, hor ere, sailkapenean aurretik zegoenak irabazi zuten. Limpiezas Rueda 3-1 gailendu zitzaion Baserriri Oierren eta Jairoren golei esker.

SAILKAPENA

1. Malape Taberna, 21 puntu
2. Bar Marem, 16 puntu
3. Xania Taberna, 15 puntu
4. Bergara Pneumatikoak, 10 puntu
5. Adahi Etxegi, 9 puntu
6. Garajes Garcia, 9 puntu
7. Kalaka Buenos Aires, 9 puntu
8. Limpiezas Rueda, 6 puntu





Deporrekoek dena eman zuten Lasarteko Krosean

E.B. Domekan, Donostiako Nazioarteko Krosaren 69. edizioa ospatu zen eta Kenyako Titus Kiprotichек izan zen irabazlea, Martin Kiprotich faboritoari gailenduz. Emakumezkoen artean, Celestine Jepkosgei kenyarra izan zen azkarrena, Marta Serrano Azpiauren aurretik.

Lasarteko Krosa bezala ere ezagutzen den proban, Eibarko Klub Deportiboko 19 atleta izan ziren parte hartzen. “Dena eman zuten, eta goiz eguzkitsu batean oso emaitza politak lortu zituzten denboraldiko lehen krosa izan den honetan”, diote Deporretik.

6,900 km-ko luzera zuen kategoría absolutuan, eibartarren artean Julen Teran izan zen azkarrena 21:44 denborarekin. Eibartarra 22. izan zen helmugan eta 6. atleta euskaldunen artean. Bestalde, Txomin Osoro-k 24:00 denborarekin amaitu zuen proba eta 24:51-ekin Markel Gutierrezek.

20 urte azpiko emakumezkoen proban, Nora Martinezek 9. postua lortu zuen 14 minutu eta 29 segundoko denborarekin. Maila bereko gizonezkoen proban, Ugaitz Garcia ere 9. izan zen 11 minutu eta 37 segundoko denborarekin, eta Anwar El Hassouini Benaissak 18. amaitu zuen 12 minutu eta 21 segundoko denborarekin.

Master kategoríari dagokionez, ordezkaritza nabarmena izan zuen Deporrek eta 8., 21. eta 29. sailkatu ziren Iñigo Trokaola (09:01), Roberto Gartzia (09:30) eta Marcos Untzetabarrenetxea (10:15), hurrenez hurren.

Eibarko Klub Deportiboko atletismo eskolako ordezkariak dagokienez, alebinetan hauek izan ziren emaitzak: Isabel Pita 05:13 denborarekin, Jule Azurmendi 05:16, Maddi Perez de Obano 05:22, Lucia Arkotxa 05:38 eta Eider Gonzalez 05:43. Benjaminetan, bestalde, Amets Rubiok, Jone Hernandezek, Marina Moralesek eta Saioa Guerrerok hartu zuten parte.



Euskalgym txapelketan aritu dira Ipuruua klubeko gimnastak

E.B. Ipuruako gimnastak Euskalgym txapelketan aritu ziren asteburuan. Kadeteek lortu zuten posturik onena, 4. amaitu zuten-eta. Jubenilak 9. izan ziren eta infantilek 52. amaitu zuten. Datorren zapatuan, Tolosako txapelketari egingo diete aurre klubeko hiru taldeek eta azaroaren 9an Eibarren jokatuko den San Andres Txapelketa prestatzeko balio izango die. Guztira, 300 gimnasta baino gehiago etorriko dira Eibarko kiroldegian 10:00etatik 18:30era jokatuko den torneora.



Gipuzkoako Igeriketa Federazioaren saria jaso dute Urbateko alebinek

E.B. Urbat waterpolo taldekoak Gipuzkoako Igeriketa Federazioaren galan (GIF) izan ziren asteburuan. 2024-2025 denboraldiko sariak banatu ziren bertan eta Eskola Ligan bigarren postua lortu zuen alebinen Eibarko taldeak saria jaso zuen, Luken eta Paul jokalarien eskutik.



Gil - Amillategi bikoteak Gipuzkoako Txapelketaren finala jokatu du

E.B. Domekan, kadeteetako Eskuz Binakako Gipuzkoako Txapelketaren finala jokatu du Eibarko Klub Deportiboko Liher Gilek eta Aratz Amillategik. Eibarko bikoteak Hernanikoa izango du aurrean, 10:30ean, Oiartzungo Madalensoro pilotalekuan jokatu den neurketan. Deporreko pilotarietako "txapelketa ikusgarria" egin dute, klubekoen berbetan, eta ginga jarri nahi diote orain arte egindako lan bikainari. Dena dela, partidu "gogorra" izango dela aurreratu dute.

Hiru partidu Astelenan

Gaur, errendimenduko alebinen eskuz banakako hiru partidu jokatu dira Astelena frontoian. Jaialdia 18:00etan hasiko da eta, lehenengo neurketan, Ibai Acha eibartarra eta Orioko Ospele klubeko Brit arituko dira nor baino nor. Acha multzoko lehen postuan dago lehenengo fasea amaitzeko bi jardunaldi falta direnean.

Horren ondoren, Markel Segurola eibartarrak Bergarako Olano izango du aurrean. Segurola, une honetan, bere taldeko bigarren postuan dago kokatuta.

Hirugarren eta azken partidari, Eibarko klubeko Enaitz Arriolak, bere multzoko bigarren postuan dagoenak, Azpeitiko Elorzaren aurka jokatu du.

Paleta goma etxetik kanpo

Paleta goma modalitateari dagokionez, eibartarrek etxetik kanpo jokatu dituzte Binakako Gipuzkoako Txapelketako lehen faseko azken jardunaldiko partidak: hirugarren mailan, Guisasolak eta Solagais-tuak ostiralean jokatu dute, Donostian, Altxako pilotalekuan; eta Lombrana eta Osak Andoaingo Arrate pilotalekuan jokatu dute; bigarren mailari eusteko, bestalde, Guinea eta Soria bikoteak, Mutriko Miruaitz pilotalekuan lehia erabakigarria jokatu du hilaren 8an.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

Athletic Club - EIBAR (bihar, 16:30)

Gizonezkoen 2. Maila

EIBAR - Albacete (bihar, 16:15)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

EIBAR B - Mutilvera (bihar, 19:00)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

EIBAR B - Aviles (bihar, 16:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR C - Alaves C (bihar, 12:30)

Erregionaleko Ohorezko Maila (gi)

URKI - Amaikak Bat (bihar, 18:30)

Erregionaleko Gorengo Maila (gi)

Anaitasuna B - EIBARTARRAK (bihar, 17:30)

Erregionaleko 1. maila (gi)

URKI B - Mutriku B (bihar, 12:35)

Jubenilen Ohorezko Maila (gi)

Leioa - EIBAR (etzi, 12:30)

Jubenilen Nazional Liga (gi)

Barakaldo - EIBAR B (etzi, 11:00)

Jubenilen Euskal Liga (gi)

URKI - Getxo (bihar, 15:30)

FUTBOL-ZALETUA

- Baserri - Bergara Pn. (bihar, 09:00)
- G. Garcia - Kalaka Bs. As. (bihar, 10:30)
- L. Rueda - Xania (etzi, 09:00)
- Adahi Etxegi - Bar Maren (etzi, 10:30)
- Atsedena: Malape Taberna

ESKUBALOA

Zilarrezko Maila (em)

EIBAR ESKU. - Zaragoza (bihar, 19:00)

1. Maila Nazionala (gi)

Tarazona - EIBAR ESKU. (bihar, 18:00)

Seniorren Euskadiko Liga (gi)

E. ESKUBALOA B - Legazpi (bihar, 16:45)

Seniorren 1. Lurraldekoa (em)

EIBAR ESKUBALOA B - Egia (bihar, 15:00)

SASKIBALOA

Gipuzkoako 2. Maila (em)

Luberri - EIBAR SASKIBALOA (gaur, 19:45)

WATERPOLOA

2. Maila

Metropole - URBAT (bihar, 12:00)

ERRUGBIA

Ohorezko B Maila

Turia - EIBAR RUGBY TALDEA (etzi, 11:00)

Kirol albiste gehiago
gure webgunean





Euskara Planari buruzko partaidetza-mahaia egingo da martitzenean Errebalen

S.H. Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Eibarren Akebai plataformak abian jarri duten 2016-2025 Euskara Planaren balorazio eta diagnostiko prozesuaren baitan, partaidetzarako saio irekia antolatu dute martitzenerako (azaroak 11), 18:30ean Errebalen (bilera-gelan). Saio horretan Eibarko herritar eta eragileen ahotsak bildu nahi dituzte, “bereziziko garrantzia duelako zuek esateko duzuen entzutea”.



Irakurle gazteentzako bi liburu aurkeztuko dituzte

S.H. Xarpa Books argitaletxeko bi liburu aurkeztuko dituzte azaroaren 14an *Burbujas y mas* liburu-dendan (Estaziño, 5) Patricia Perez eta Julio Santos egileek, 18:30ean. Haur eta nerabeei zuzendutako bi lan berri emango dituzte ezagutzera: Txano eta Oscar bildumako *Begiak zeruan* (8-12 urte) eta Sara Li bildumako *Itzalak Kaz Madhanen* (10-14 urte). Biak dira oso ezagunak irakurle gazteen artean, eta euskaraz ez ezik beste hizkuntza batzuetan ere argitaratzen dituzte abenturaz eta misterioz gainezka egiten duten liburu hauek.



Martha Coolidgeri buruzko bideo-foruma Andretxean

S.H. Martitzenean (azaroak 11) egingo da bideo-forum feminista saioa, 17:00etan Andretxean. Pagatxaren Emakumeen Istorioak zikloaren baitan antolatutako saioan Martha Coolidge zinemagilearen bizitza eta lana emango dituzte ezagutzera, Patricia Perex Cotok gidatuta. Estatu Batuetako Zuzendarien Sindikatuko buru (2002-2003) izatera ailegatu den lehen emakumea (eta bakarra) izateaz gain, zuzendaria, ekoizlea, zinema editorea, gidoilaria, errealizadorea eta sindikalista ere bada. Zuzendu zuen lehen lana, *Not a Pretty Picture*, Coolidgek berak bizi izan zuen bortxaketan oinarrituta dago.



Gipuzkoako Artisten Elkartearen erakusketa berria

S.H. Gipuzkoako Artisten Elkartearen erakusketa zabalduko dute gaur (barixakua, azaroak 7), 19:00etan Topalekun. Hilaren 23ra arte egongo da ikustera joateko aukera, ohiko ordutegian: astegunetan, 19:00etatik 21:00etara; eta jai egunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.



Eibarko Liburu Azokaren edizio berria abiatu da

S.H. Gaur zabaldu ditu ateak Eibarko Liburu Azokak, Untzaga plazan. Azaroaren 16ra bitartean, literaturako azken nobedadeak, euskarazkoak zein gaztelaniazkoak esku-eskura izango ditugu, ohikoa baino prezio merkeagoan, gainera. Azoka martxan dagoen bitartean, egunero zabalduko dituzte argitaletxe ezberdinek bertan ipini dituzten postuak, goizez (11:00etatik 14:00etara) eta arratsaldez (17:00etatik 20:30era). Aurreko edizioetan bezala, oraingo honetan ere Udalak postua izango du, eta herriko egileei beraien lanak bertan aurkezteko aukera emango die. Iazko moduan, aurtan ere Araceli Bono bertan egongo da, bere poesia-liburuak saltzen eta sinatzen. Udaletik adierazi dutenez, “ekimen honekin, herriko talentua babestu eta ikusgai jarri nahi dugu eta, horrekin batera, idazle eta irakurleentzat topagune bat sortu”. Urtero Liburu Azoka antolatuta, literaturaren presentzia indartzea eta irakurtzeko zaletasuna sustatzea bilatzen dute.

Irakurzaletasuna sustatzeko ekimenak

Eibarko Udal Liburutegiak ere urte osoan zehar antolatzen ditu irakurzaletasuna sustatzera bideratutako jarduerak, tartean helduentzako irakurketa klubak (euskaraz zein gaztelaniaz). Horietako bi saio datoren astean izango dira, Liburu Azokarekin bat:...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean antolatzen duen *Idazlearekin Harixa Emoten*-en hurrengo saioa martitzenean (azaroak 11) egingo da, eta Itxaso Martin Zapirainen *Puntobobo* liburuari buruz arituko dira. Eta, hurrengo egunean, Uxue Alberdik hartuko du parte *La trastienda* liburuari buruzko literatur-tertulian (gaztelaniazko taldean). Abenduko saioetarako idazle gonbidatuak, berriz, Iker Aranberri Sarasua (abendua 9an, *Baden verboten* liburuarekin) eta Marlen Haushofer (abendua 10ean, *La pared* lanarekin) dira.



Eibarko XXIII. Txistularien Alardea bihar gauean ETB1en

S.H. Eibarko lehen txistulari bandaren 90. urteurrena ospatzeko, Txistularien XXIII. Alardea egin zen ekainaren 15ean, Untzagan, eta bertan 150 musikari, dantzari eta korukide baino gehiago elkartu ziren, tartean Donostiako Orfeoia. Euskal Telebistak emanaldia grabatu zuen eta bihar emango dute ikuskizuna, osorik, 22:00etatik aurrera ETB1en. Usartza Txistulari Taldeak Udalarekin lankidetzan antolatutako kontzertuan, Euskal Herriko hainbat tokitatik etorritako txistulariak aritu ziren Eibarkoekin batera, eta Eibarko Musika Eskolako txistu-ikasleek, herriko metal boskoteak, teklatuak, baxu elektrikoak, perkusioak, eta Kezka eta Neledantza taldeek ere hartu zuten parte. Garikoitz Mendizabalek zuzendu zuen.

Altxau Burua txokoa eta baliabideen gida prestatu dituzte

S.H. Eibarko Liburutegiak, Altxau Burua Eibar guraso elkar-tearekin elkarlanean, irakurketa gidaren bigarren edizioa prestatu du, teknologiaren eta osasun mentalaren arteko harremanari buruzko baliabide erabilgarriak herritarren eskura jartzeko helburuarekin. Ekimen hau ikusgarriago egiteko, liburutegian interes gune berezia jarri dute, eta azaroaren 16ra arte egongo da bertan, “Teknologia eta osasun mentala” izenburupean. Bertan egongo dira eskuragarri, maileguan hartzeko, gidak gomendatutako liburu guztiak. Gida Internet bidez deskargatzeko aukera ere badago, Udalaren webgunean.



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

		9					5
5		1	6				7
	8			1	7	2	6
		5		7	1		
			4		8		
			9	5		3	
	9	6	1	2			5
	5				4	8	1
4						6	

SUDOKUA

2	3	6	5	9	6	7	4	1	8
1	6	8	4	7	2	5	3	9	2
4	5	7	2	1	9	6	8	3	5
7	2	3	6	5	8	1	4	9	7
9	1	5	8	3	4	2	7	6	1
8	4	1	7	2	5	9	3	6	8
6	9	2	1	7	5	3	8	4	6
3	8	4	7	6	9	1	2	5	3
5	7	1	8	9	3	6	4	2	7
7	4	2	1	8	6	5	9	3	4

1	4	6	5	7	9	4	8	1	3
1	8	7	4	3	6	2	5	9	7
9	5	1	1	8	2	7	3	6	4
7	1	8	2	9	4	3	6	5	2
5	6	3	7	1	8	4	2	5	9
9	2	4	1	5	6	3	7	8	1
4	1	9	6	5	3	1	7	8	2
3	1	5	7	4	8	6	2	9	4
7	3	2	9	6	5	8	1	4	7
2	4	8	1	7	9	6	5	3	2

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

7							
2		8			6		7 3
	1		7 4			2	
		1				2	
	2						9
		3				8	
	3			8 1		4	
6 5		9			7		1
							2

Topatu liburuan agertzen diren txoriak



Azaroak 7 / Azaroak 13

BARIXAKUA 7

LIBURU AZOKA

11:00/14:00ra eta

17:00/20:30 Eibarko Liburu Azoka. Literaturako azken nobedadeak, deskontuarekin. Untzaga.

ZINE-FORUM FEMINISTA

18:30 Pagatxaren zine-forum feminista: "Nunca, casi nunca, a veces, siempre" Portalea.

INAUGURAZIOA

19:00 "Gipuzkoako Artisten Elkartea" erakusketa zabaltea. Topaleku.

FILM LABURREN JAIALDIA

19:30 Asier Errasti Film Laburren XXVI. Jaialdia. Lehiaketara aurkeztu diren laburmetraien proiektzioa. Antolatzailea: Plano Corto. Sarrera doan. Coliseo.

ZAPATUA 8

LUZAKETA TAILERRA

09:30/10:15 eta 10:15/11:00 Luzaketak, Nuria Rodriguez Ibarrekin. Ipuruko Merkatu Plaza.

LIBURU AZOKA

11:00/14:00ra eta

17:00/20:30 Untzaga.

HITZALDI-DASTAKETA

11:00 Azkorria kooperatibako gazta-dastaketa, Ekaitz Masusta gaztagilearen eskutik. Antolatzailea: Basa elkarte. Erreal Plaza (Basagunean).

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

FILM LABURREN JAIALDIA

19:30 Asier Errasti Film Laburren Jaialdiaren amaiera-ekitaldia eta sari-banaketa. Sarrera doan. Coliseo.

DOMEKA 9

LIBURU AZOKA

11:00/14:00ra eta

17:00/20:30 Untzaga.

GAZTAINA-JAIA

12:00/15:00 "Festa do Magosto" gaitaina festa, As Burgas Galiziako Etxeak antolatuta. Gaitaina erreka, pintxoak, enpanada, edariak... Musika, Os Galaicos taldearekin. Ondoren, anaitasun-bazkaria. Urkizun.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

KOMEDIA FEST

19:30 "A pelo" umorezko bakarrikzeta, Gorka Aguinagalderekin eskutik. 16 euro. Uni Eibar-Ermua.

ASTELEHENA 10

LIBURU AZOKA

11:00/14:00ra eta

17:00/20:30 Untzaga.

GAZTAIÑERRE

19:00 Kalejira eta ondrazina, Gaztaiñerre ospatzeko. Euskal kantak abestu eta gero, merienda, Depor tabernan. Antolatzailea: AEK euskaltegia. Paloma tabernatik abiatuta.

KANTU-SAIOA

19:00 "Euskal kanta tradizionalak" saio irekia. Arrate Kultur Elkartea.

MARTITZENA 11

LIBURU AZOKA

11:00/14:00ra eta

17:00/20:30 Untzaga.

BIDEO-FORUMA

17:00 Emakumeen Istoriak: Martha Coolidge zinemagileari buruzko saioa, Pagatxa emakume elkar-teak antolatuta.

ENTSEGUA

18:30/19:30 Koralito abesbatza. Ipuruko Merkatu Plaza.

EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA

18:30 Partaidetza-saio irekia, 2016 - 2025 epealdian indarrean egon den Euskararen plan estrategikoari buruzko balorazioak, iritzia, ekarpenak... biltzeko. Erreal Plaza (bilera-gela).

LITERATURA

19:00 Idazlearekin Harixa Emoten euskarazko irakurketa-kluba: Itxaso Martin Zapirainek hartuko du parte, "Puntobobo" lanari buruzko tertulian. Portalea (Batzartoki 1-2).

EGUAZTENA 12

LIBURU AZOKA

11:00/14:00ra eta

17:00/20:30 Untzaga.

HITZALDIA

11:00/13:00 "Osasuna eta udazkena" hitzaldia (gazte-leraz). Beheko Tokia adinekoen zentroa.

LITERATURA

19:00 Gaztelarazko irakurketa-kluba: Uxue Alberdik hartuko du parte, "La trastienda" liburuarekin. Portalea (Batzartoki 1-2).

BISITA GIDATUA

18:30 Doako bisita gidatua, Euskal Akuareliaren Elkar-tearen erakusketara. Portalea (erakusketa aretoa).

EGUENA 13

LIBURU AZOKA

11:00/14:00ra eta

17:00/20:30 Untzaga.

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emai-leentzat. Untzaga jubilatuta etxea.

HITZALDIA

18:00 "Indarkeria matxisten biktimen ahotsak: memoria, erreparazioa eta aitortza", Mugarik Gaberen eskutik. Euskaraz. Andretxea.

30. URTEURRENA

18:00 Kafesnea. **18:30** Musika emanaldia, Sofia Machinen eskutik. Beheko Tokia adinekoen zentroa.

ERAKUSKETAK

Azaroaren 7tik 23ra

"Gipuzkoako Artisten Elkartea". Topaleku.

Azaroaren 1etik 30era

Indalecio Ojaguren XXXVIII. Argazki Lehiaketako lanak. Portalea.

Azaroaren 16ra arte

Euskal Akuareliaren Elkar-tearen (AVA-EAE) nazioarteko akuarela erakusketa. Portalea.

ZINEA COLISEO



"Together"
FANTASIA. BELDURREZKOA
2025 / Australia / 102'
Zuzendaria: Michael Shanks
Aktoreak: Dave Franco, Alison Brie, Damon Herriman
Body Horror. Naturaz gaindikoa

1 ARETOA
• **8an:** 17:00, 19:45, 22:30
• **9an:** 17:00

ANTZOKIA
• **9an:** 20:00
• **10an:** 19:30



"Esa cosa con alas"
DRAMA
2025 / Erresuma Batua / 98'
Zuzendaria: Dylan Southern
Aktoreak: Benedict Cumberbatch, Richard Boxall, Henry Boxall, Eric Lampaert
Drama psikologikoa. Familia.

1 ARETOA
• **9an:** 20:00
• **10an:** 19:30



"Siempre es invierno"
DRAMA. ERROMANTZEA.
2025 / Estatu Espainola / 117'
Zuzendaria: David Trueba
Aktoreak: David Verdaguer, Amaia Salamanca, Isabelle Renaud.
Drama erromantikoa.

2 ARETOA
• **8an:** 19:45, 22:30
• **9an:** 17:00, 20:00
• **10an:** 19:30



"Super Charlie"
FANTASIA. KOMEDIA
2024 / Suedia / 82'
Zuzendaria: John Holmberg
Animazioa.

2 ARETOA
• **8an:** 17:00
ANTZOKIA
• **9an:** 17:00



Fernando Azkarate Telleria

15. URTEURRENA
2010/11/07

"Beti izango zara gure bihotzetan"

- ETXEOAK -





Ana Dominguez Areta

3. URTEURRENA
2022/11/05

"Beti egongo zara gurekin. Maite zaitugu"

- ETXEOAK -



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **JON!** hilaren Sean lau urte bete zenduaz. Musu eta besarkada haundixa etxekuen eta, batez be, zure arreba Maidarren partez.



Zorionak **MARENTXO!** 2 urte iada etxeko txikixak, segi gure bizitzak alaitzen! Askok maite zaittugu!



Zorionak **NAHIKARY!** Bi urte betetzen dozuz neska haundi. Musu potolo bat famelixaren partez. Ayarak, amak eta aitak asko maite zaittugu.



Zorionak **ENKO!** Domekan, azaroak 2, 10 urte bete zenduaz. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez ere, lbaien partez.



Zorionak **IRATI!** Gure etxeko txikixenak urtetxo bat bete zeban atzo! Segi beti bezain alai pitxin, izugarri maite zaittugu.



Zorionak **MARKEL!** Hilaren Sean 6 urte egin zenduaz. Jarraitu beti bezain jator eta alaia izaten. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak **MARKEL!** Atzo, azaroak 6, 5 urte bete zenduaz. Musu potolo bat famelixa guztiaren eta, batez be, Julen eta Danelen partez.



Zorionak **AMA!** Azaroaren 13an izango da zure urtebetetzia. Besarkada haundi bat famelixa guztiaren partez. Askok maite zaittugu.



Zorionak **JULEN!** Astelehenian urtetxua betetzen dozu eta! Jarraitu zure irribarriakin eta begitxuekin gure bizitzak argitzen!



Zorionak **IRATI!** Astelehenian 2 urtetxo beteko dozuz. Segi horren alai! Etxekuek asko maite zaittugu!



Zorionak **LIHER!** 9 urte mutil haundi! Etxekuen partez musu olinpikoa!!!



Zorionak **MIREN!** Bihar, 13 urte beteko dozuz. Segi beti bezain alaia izaten. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak **LOREA!** Astelehenian 8 urte beteko dozuz eta! Jarraitu beti bezain alai eta jator. Musu haundi bat etxekoen partez.



Zorionak, **MARKEL** eta **JUNE**, 9 eta 4 urte bete dozuez eta. Milla musu, aitxitxa, amama eta famelixa guztiaren partez. Aupa bikote, onenak zarie!!



Zorionak **MARTIN** eta **ANDER!!** Patxo potolo bat famelixa guztiaren eta, batez be, Lur, Telmo eta Marinaren partez. Askok maite zaittuztegu!

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

3. LOKALAK
3.2. Errentan
• Taberna eskualdatzen da. Lokala alokagai, erosketarako aukerarekin. San Kristobalen. 943821329.
• Amañan guztiz hornitua da- goen ileapaindegia alokatzen da, solarium eta guzti. 61579 8724.
• Gazteentzako, merkataritza- rako edota edozein erabile- rarako lokala alokatzen da. Urkizu Pasealekua 11, behea. 660084356
4. LANA
4.1. Lan bila
• Emakumea eskaintzen da zaintza lanetarako, garbiketa lanetarako edota sukalde laguntzaile bezala aritzeko. 604121670.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako edota ostala- ritzan sukaldean aritzeko. 600073104.
• Emakumea eskaintzen da na- gusiak zaindu edota garbiketa lanetarako, asteburuetan. 624533959.
• Emakumea eskaintzen da ostalaritzan zerbitzari edota sukalde laguntzaile aritzeko, zein nagusiak edo umeak zain- tzeko. 631228039.
• Emakumea eskaintzen da ume eta nagusiak zaintzeko, baita garbiketa lanetarako. Erabate- ko prestutasuna. 631483249.
• Mutila eskaintzen da astebu- ruetan tabernetan lan egiteko. 682213356. Iker.
• Garbiketa lana edo nagusien zaintza egiteko prest nago. Arratsaldetan. 620757528. Arrate.

- Emakumea eskaintzen da na- gusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Garbiketarako ziurtagiri eta ziurtagiri sozio- sanitarioarekin. 643517094.
- Emakumea eskaintzen da umeak eta nagusiak zaintze- ko, zein garbiketa lanetarako. Ziurtagiri soziosanitarioare- kin. 642135146.
- Tituludun erizaina eskaintzen da pazienteak zaintzeko, mu- gikortasun arazoak izan edo ez. Baita umeak zaintzeko ere. 641834341.
- Mekanika ingeniaria eskain- tzen da edozein motatako lanak burutzeko: igeltseritza, iturgintza, elektrizitatea, pin- tura... 641838914.
- Emakumea eskaintzen da nagusien zaintza eta lagun- tzarako, ziurtagiri soziosa- nitarioarekin. Arratsaldez, gauzez edota asteburuetan. 661063891
- Emakumea eskaintzen da nagusien zaintzarako. Externa edo interna. Baita ospitaletan ere. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da, orduka, nagusien zaintzarako. Ziurtagiria eta erreferentzia onekin. Garbiketa lanetarako ere prest. 667060292.

4.2. Langile bila
• Eibarko erdiguneko tabernan, mahaietan aritzeko zerbitzari bila gabiltza. 604203896.

5. IRAKASKUNTZA
5.2. Eskaintzak
• Lehen Hezkuntza, DBH eta Ba- txilergoko ikasleentzako eus- kara eta ingelesezko klaseak ematen ditut. Esperientziare- kin. 629360924. Naiara.
• DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
• Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko tal- deak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
• DBH, Batxilergo eta Uniber- tsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko auke- ra. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK
6.1. Salgai
• Oso gutxi erabilitako sehaska zuri lakatua salgai, koltxoi eta guzti. 679184531.
6.3. Galdu/Aurkitu
• Gabonetako loteria aurkitu nuen kalean zapatuan (urriak 25). 653724549.
6.4. Bestelakoak
• Bizikleta estatikoa erosiko nuke. 656732584.

GREMIOEN GIDA

ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Ifnoa: 943 12 73 80
www.trinmer.com



**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

ELEKTRIZITATEA

THELECEER
TELEKOMUNIKAZIOAN
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
urgentziak
610 532 922 www.theleceer.com



KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARILOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com  eta FAXA:
943 203 903



AROTZAK



**aluminiozko eta PVC-ko
AROTEGIA**
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Ifnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
Jose Maria Irazabal, S.L.
Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobear
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Ifnoa: 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK

IÑAKI
pinturak eta lurrak
Tel. 647 902 208
Bidebarrieta, 21 - behea



PLAGEN AURKA

PLAGANATURA
PLAGEN, AURKAKO ZERBITZUAK
www.plaganatura.com
943 086 700
ELEGIAH



Bost urte eman
zenituen karrera ✨
ikasten.

Eman bost  5 min
minutu gutxienez
lokala aukeratzen. 🖐️

Errekatxu Berri da zure
negozioaren giltza; zatoz.
Lokalak eta **garajeak** salgai,
estreinatzeko prest.



Informa zaitez
loiola.com
900 102 220

 **Loiola**
Espacios para vivir